

udal etxea



ayuntamiento

EUSKARAREN ERABILERAREN SUSTAPEN ETA NORMALIZAZIORAKO UDAL ORDENANTZA.

SARRERA

Euskara da Euskal Herriko nazio-hizkuntza eta, era berean, Mendaroko Udal eta Udalerriko hizkuntza.

Euskerak herritar guztien elementu integratzaile izan behar du, eta Mendaroko auzotar guztientzat hala izan dadin saiaturiko da Udala.

Hainbat eta hainbat urtetan jasan duen zokoratze prozesuaren ondorioz, euskara normaltasun sozialaren egoeratik urrun dago. Hortaz, euskararen normalkuntza osoa lortzeko xedez, lehentasunezko tratamendua emango dio Mendaroko Udalak euskararen erabilpenari, euskara Mendaroko Udal-ihardueraren eta Udalerriaren hizkuntza bihurtuz.

EUSKERAREN ERABILERAREN SUSTAPEN ETA NORMALIZAZIORAKO UDAL ORDENANTZAREN forma juridikoa landuz, Mendaroko Udalak tresna egokia bereganatzen du, garatu asmoz ari den hizkuntz honen defentsaren bidetik jarraitzeko.

Bost urtetako epea finkatzen da Udal-Administrazio honetako zerbitzuak Ordenantza honetan bertan xedatzen denari egokitzeko, nahiz eta epe hau geroago zabaldu Ordenantzaren garapenaren ikerketaren arabera.

Hala ere, Hego Euskal Herriko Euskal Herriko herritar guztiek dute euskara edo gaztelania erabiltzeko eskubidea, nola hitzez ala idatziz. Ondorioz, Mendaroko Udalak honako hizkuntz eskubideak aitortzen dizkie espresuki herritarrei:

a. - Udalarekin eta bere menpeko Organismo ororekin ahozko edota idatzizko harremana euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.

b. - Udalak antolatu, gestionatu edo lagunduriko ikasketak oro euskarazko ereduetan egiteko eskubidea zinezkoa.

d. - Udalaren argitalpenak eta egunkari, aldizkari, irrati eta beste edozein komunikabidetan jakitera ematen dituen berri eta xedapen oro euskaraz hartzeko eskubidea.

e. - Udaleko edozein bileratan euskaraz jarduteko eskubidea.

udal etxea



ayuntamiento

I. APLIKAZIO ESPARRUA.

1. Art. - Mendaroko Udal-Administrazio eta bere menpe dauden erakundeen euskararen erabilera, Ordenantza honek ezartzen dituen xedapenak arautuko dute.

II. HIZKUNTZEN ERABILPEN OROKORRA.

2. Art. - Mendaroko Udalak, orokorrean, euskara erabiliko du bere harremanetan, honako artikuluetatik ondorioztatzen diren berezitasunez.

III. BARNE ERABILPENA.

3. Art. - Izaera administratiboko barne iharduerak, progresiboki eta dokumentu honen sarreran aipatutako epearen arabera, euskaraz burutuko ditu Udalak.

4. Art. - Mendaroko Udaleko organo ezberdinek erabilitako barne inprimaki guztiak, euskaraz burutuko dira, progresiboki. Euskarari lehentasuna ematen dioten bertsio elebidunak interesatuen esku egongo dira (Elebitasun normalizatzailea).

5. Art. - 1. - Bulego eta lan geletako errotuloak eta gainerako beste mota bereko adierazleak, euskaraz egingo dira.

2. - Paperen idazpuruak, gomazko zigiluak, tinbre zigilatuak eta antzeko beste elementuak, euskaraz egingo dira. Euskarari lehentasuna ematen dioten bertsio elebidunak interesatuen esku egongo direlarik kasu guzti hauetan.

6. Art. - Ordenagailuen programak eta Udaleko dependentzietan erabiltzeko eskuratutako diren material orok, ahal den neurrian, euskaraz funtziona dezaten egokituta egon beharko dute.

7. Art. - Mendaroko Udalak, Hego Euskal Herriko esparruan, hirugarren batzuei enkargatutako azterketa, proiektu eta antzeko lanak, era elebidunean entregatuko dira ahal den neurrian.

IV. ERAKUNDEEN ARTEKO HARREMANAK



8. Art. - Mendaroko Udalak, Hego Euskal Herriko lurralde-esparruaren barruan dauden beste Administrazio Publikoeri nahiz erakunde ofizialei zuzendutako dokumentazioa, euskaraz idatzita bidaliko du.

9. Art. - Beste Administrazio Publikoek nahiz erakunde ofizialek Mendaroko Udalarari zuzendutako dokumentazioa, berau Hego Euskal Herriko lurralde esparruaren barrutik datorrenean, euskaraz idatzirik bidali dezaten eskatuko du Udalak.

Dokumentazioa espainolez iritziko balitz, eta zinegotzi edo udalkideren batek horrela eskatuko balu, Euskarako Udal Zerbitzuak itzuliko luke.

10. Art. - Euskara ofiziala den eremuetan, erakunde ofizialek, nahiz Administrazio publikoetatik jasotzen den dokumentazioa euskaraz ez balego, hizkuntza honetaz idatzita bidali dezaten eskatuko da.

11. Art. - Mendaroko Udaleko dokumentuak, Hego Euskal Herriko lurralde esparrutik kanpo dauden gainerako beste administrazioetara zuzendurik daudenean, euskera/gaztelera edo euskera/jasoko duen administrazioaren hizkuntza ofizialean idatziko dira.

12. Art. - Mendaroko Udalak Hego Euskal Herriko lurralde esparrutik kanpoko Administrazio Publikoek, nahiz erakunde ofizialei zuzendutako dokumentuen kopiak, gaztelaniaz edo dagokion administrazioaren beste hizkuntza ofizialean bideratuko dira -testua euskarazko originalaren itzulpena dela adieraziz- edota euskaraz/gaztelaniarako edo beste hizkuntza ofizialerako itzulpenekin batera.

V. ADMINISTRATUEKIKO HARREMANAK.

13. Art. - Udalerriko esparruan nahiz Hego Euskal Herrikoan kokatutako pertsona fisiko nahiz juridikoei zuzendutako komunikazio eta adierazpenak euskaraz egingo dira. Herritar batek gaztelaniaz eskatuko balu, euskarari lehentasuna emango liokeen forma elebidunean emango litzaioke (Elebitasun normalizatzailea).

14. Art. - Hego Euskal Herriko esparrutik kanpo kokatutako pertsona fisiko eta juridikoei zuzendutako komunikazio eta jakinerazpenak, euskarari lehentasuna emanez, bi hizkuntzetan eginak zuzenduko zaizkie (Elebitasun normalizatzailea). Pertsona fisiko edo juridiko batek euskaraz eskatuko balu, hala zuzendu beharko litzaioke.

udal etxea



ayuntamiento

15. Art. - Udal Administrazioak euskaraz nahiz gaztelaniaz zuzentzen zaizkion pertsona fisikoen komunikazioak, onartuko ditu, eta horrela dagokionean, berri emaillearen lurraldeko beste hizkuntza ofizialean eginikoak ere.

16. Art. - Herritarrei Euskara hutsean idatziriko inprimakiak eskainiko zaizkie. Norbaitek gaztelaniaz eskatuko balitu, euskarari lehentasuna emango dion forma elebidunean prestatutakoak emango litzaizkioke (Elebitasun normalizatzailea).

17. Art. - Hego Euskal Herriko esparruaren barruan eragina duten dokumentu eta inprimakiak euskaraz egingo dira. Hego Euskal Herritik kanpoan eragina dutenean, euskarari lehentasuna emango dion forma elebidunean idatziko dira (Elebitasun normalizatzailea).

18. Art. - Espedienteen kopiak euskaraz luzatuko dira. Norbaitek gaztelaniaz eskatuko balitu, euskarari lehentasuna emango dion forma elebidunean idatzirikoak zuzenduko litzaizkioke (Elebitasun normalizatzailea).

19. Art. - Funtzionarioak, euskaraz zuzenduko zaizkie herritarrei beren ahozko harreman ofizialetan. Hala ere, herritarrek ondoren egiten duten ahozko hizkuntzaren aukera errespetatuko dute jarraitzerakoan.

20. Art. - Udalak izenpetzen dituen kontratazio-dokumentu guztiak euskaraz idatzita egongo dira, eta norbaitek gaztelaniaz eskatuko balitu, forma elebidunean aurkeztuko zaizkio (Elebitasun normalizatzailea).

VI. OÑAR, ARGITALPEN ETA IHARDUERA PUBLIKOAK.

21. Art. - Udal Administrazioaren eta bere menpe dauden erakundeen xedapenak euskaraz argitaratuko dira, elebitasunezko formaren kalterik gabe, hauek beharrezkotzat hartzen direnean (Elebitasun normalizatzailea).

22. Art. 1. - Aldizkariak, kartelak eta, orohar, udalaren argitalpenak, euskaraz argitaratuko dira, Euskal Herriko lurralde-esparrutik kanpora begira bereziki zuzendutakoak izan ezik. Hauek euskara/gaztelania edo euskara/hartzailearen hizkuntza formato argitalpen elebidunean egingo dira.

udal etxea



ayuntamiento

2.- Salbuespen gisa, Udalaren argitalpen eta kartelen bertsioak, beste hizkuntzaren batetan ere argitara daitezke, beren xedea dela medio, dagokien administrazio-atalaren erizpideen arauera.

23. Art. 1.- Udal-administrazioetik eta bere menpe dauden erakundeetatik datozen oharrek, era guztietako publizitatea eta iragarki publikoak, euskaraz argitaratuko dira, eta beharrezkoa baldin bada, euskarari lehentasuna emango dion forma elebidunaren bidez ekoiztuko dira.

2.- Hego Euskal Herriko esparrutik kanpo eraginak izan behar dituztenean, lurraldeari dagokion hizkuntza ofizialean egingo da, edo bi hizkuntzetan horrela egoki denean.

24. Art.- Administrazioiko karguen iharduera publikoan, normalki, euskara erabiliko da, iharduera hori karguaren eginkizunen alorrekoa denean.

VII. ERREGISTROAK.

25. Art.- Udalaren bulegoetako Erregistro Administratiboetan, inskripzioak euskaraz egingo dira, aurkeztutako dokumentuan erabilitako hizkuntza edozein izanda ere.

26. Art.- Erregistrotik luzatutako zihurtapenak euskaraz eskeiniko dira. Eskatzaileak egiten duen hizkuntzaren aukera librea errespetatuz, beti ere.

VIII. PERTSONALAREN BIRZIKAIA.

27. Art.- Udalak bere helburutzat hartu du euskarari lehentasunezko tratamendua ematea, hau da, bere Udal iharduera oso osorik euskaraz burutzea.

28. Art.- Aurreko artikuluan markaturiko helburu hau lortzeak zera eskatzen du: Udaleko lanpostuen hizkuntz eskakizunak zehaztea. Beraz, Mendaroko Euskara Zerbitzuak proposatuz, Euskararen Batzorde Informatiboak jasoko ditu hizkuntz eskakizunak Udal Plenoan onartzeko. Ondoren, eranskin gisa gaineratuko zaizkiolarik Ordenantza honi.

29. Art.- Aurreko artikuluan aipatutako helburua betetzeaz gain, Ordenantza honetan herritarrei aitortutako eskubideak benetakoak eta iragankorrak izan daitezzen, beharrezko neurriak hartuko ditu Udalak. Horretarako beste zenbait neurrien artean, euskarazko ikastaro trinkoetara joateko baimen eta laguntza emango die Mendaroko Udalak,



Administrazio atal bakoitzaren adostasunean, beren eginbeharrak betetzeko behar dituzten euskarazko ezagupenak ez dauzkaten langile-funtzionario guztiei.

30. Art. - Mendaroko Udal, eta bere menpe dauden erakundeetan, leku aldaketaz, igoeraz, transferentziaz nahiz beste edozein bidez lanpostu berri batetara heltzeko, ezin besteko baldintza da lanpostuari dagozkion hizkuntz eskakizunak betetzea. Horretarako Udaleko lanpostu guztien zerrendak berak jasoko ditu lanpostu bakoitzari dagozkion hizkuntz eskakizunak. Eta urteko aurrekontuek lanpostuen erlazioa jaso dezaten, urte horretan Udalean egingo den lanpostu eskeintza epe barruan aurkeztuko da Udalbatza Plenoak onar dezan.

31. Art. - Udal-Administrazioak, aurrikusitako helburuak lortzeko iharduera-plangintzak egingo ditu.

IX. UDALETXEAK KONTRATATURIKO PERTSONAL BERRIAREN HAUTESPENA.

32. Art. - Era berean, Mendaroko Udalak etorkizunean kontratatuko dituen langile-funtzionarioek beren iharduera euskaraz nahiz gaztelaniaz burutzeko gai izan beharko dute. Beraz, Udalean eta Udalaren menpeko organismoetako lanpostuetan definitutako hizkuntz eskakizunak bete beharko dituzte, lanpostuetan ihardun ahal izateko.

33. Art. - Frogak egin eta gero, hizkuntz eskakizunak betetzen dituen pertsonarik ez balego, Udaletxeak bi aukera hauetako batetik joko luke: plaza hutzik utzi berriro deialdia egiteko, edo epe bat jarriko dio behin behingoz kontratatuari, lanpostu horri dagozkion hizkuntz eskakizunak eskura ditzan. Epe hori bukatu ondoren behin-behingoz kontrataturiko enplegatuari dagokion hizkuntz ezagupenen mailaren jabe dela egiaztatu beharko du Udalaren aurrean. Honela frogatuz gero, behin betirako kontratua egingo zaio, baina frogatuko ez balu, lan kontratua hautsi egingo da, lanpostu hori barne-sustapenera atera edota deialdi publikora bileraziz.

X. EUSKARAREN ERABILERA UDALERRIAN.

34. Art. - Euskara gizarte esparru guztietan erabil dadin eta, orohar, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehi dadin, neurri egokiak hartuko ditu Udalak. Hildo horretatik, hiru dira euskararen erabilera Mendaroko Udalerrian normalizatzeari dagokionez Udalak bere gain hartzen dituen bitarteko nagusiak:

udal etxea



ayuntamiento

a. - Zabalpen funtzionala: euskara gizarte bizitzan gero eta indartsuago agertu dadin, beharrezko planak bideratzea.

b. - Zabalpen demografikoa: elebidunen kopurua handitzea eta hobeagotzea, euskaraz ez dakitenek ikasi dezaten bideak jarritz, eta dakitenek alfabetatu daitezzen bitarteko egokiak bideratuz.

d. - Zabalpen geografikoa: Euskara Mendaroko herriko auzo eta auzune guztietara zabaltzea.

Beraz, euskararen erabilera zihurtatzeko, bultzatzeko eta gizartearen erabilpen-esparru guztietan orokortzeko xedez, ahalegin bereziak egingo ditu Mendaroko Udalak.

35. Art. - Mendaroko Udalerriko kale, bide, auzo, auzune, mendi, ibai eta erreka eta, orohar, leku izenen izendegi ofiziala, Mendaroko Udalak finkatuko ditu, kasu guztietan errespetatuz euskal, erromantze edo gaztelaniazko jatorria, hizkuntza bakoitzaren grafia propioarekin.

Aurreko paragrafoan aipatu izendagi ofizialei buruz gatazka sortuz gero, Korporazio Lokalak, Euskaltzaindiarekin harremanetan jarri ondoren, beharrezko den erabakia hartuko du.

36. Art. - Herribideetako, kale ideetako trafiko seinale eta, orohar, mota guztietako iragarpenak, euskaraz jarriko dira.

37. Art. - Mendaroko Udal garraio publikoetako inprimaki, abisu eta adierazpenak oro euskaraz egin daitezzen, neurri eraginkorrak hartuko ditu Udalak. Batez ere, pertsonalaren, errotulazioaren eta publizitatearen alorrean bereziki eraginez. Era berean, Mendaroko Udalerrian abiapuntua edo geralekua duten garraio publikoetako arduradunei ere gauza bera egin dezaten eskatuko zaie.

38. Art. - Herriko bizitza sozial eta kulturalaren eremu guztietan euskararen sustaketa eta erabilera, merkatal, kultur, gizarte, kirol, erlijio eta beste zeinahi motatako entitateetan gehitu dadin ahalegin berezia egingo du Udalak, honako helburuei arreta berezia jarritz:

1. - Urtean zehar egiten dituzten erabilera publikoko idatzizko iharduerak -idazki, iragarki, kartel, ohar eta abarren testura- euskaraz idatzi ditzaten.

2. - Urtean zehar egiten dituzten erabilera publikoko ahozko iharduerak-jakinarazpenak, propaganda, abisuak, etab., euskaraz adierazi ditzaten.



39. Art. - Mendaron ematen den irakaskuntza ez unibertsitarioan, euskarazko irakaskuntza orokortu dadin, saio bereziak egingo ditu Udalak, batez ere matrikulazio epeak irekitzerakoan, D eredua aukeratu duten haurrek, antolamendu arrazoiak direla medio eredu horietan eskolatu gabe gera ez daitezten. Era berean, eskola mundua eta eskolumeen arteko giroa euskalduntzeko iharduera osagarriak ere bultzatuko ditu Udalak. Guzti hori ikastetxeekin elkar lanean burutuko da.

40. Art. - Irakaskuntza unibertsitatearen alorrean, euskarazko hildoak bultzatzeko, eta Mendaroko Udalerriko ikasleak unibertsitatean euskarazko hildoetan matrikula daitezten, ahalegin berezia egingo du Udalak.

41. Art. - Hizkuntz normalizazioaren esparruan Udal honen xede nagusietarikoa euskaraz hitzegiten dakitenen kopurua gehitzea eta hitzegiteko prest daudenak alfabetatzea denez, lan horretan dabiltzan eta izaera publikoa duten ente edo erakundeak lagunduko ditu Udalak.

42. Art. - Udalak saio bereziak egingo ditu gizarte esparru guztiak euskalduntzeko, haur, gazte eta helduentzat kultur eta aisia ospakizun bereziak euskaraz antolatuz, euskarazko kreazioa indartu eta euskaraz idatzi eta irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko xedez, etab.

43. Art. - Euskararen presentzia komunikabideetan indartzeko, Mendaroko Udalak komunikabideei bidaliko dizkien oharrak, jakinarazpenak, etab., euskaraz edo elebidun forman bidaliko ditu. Halaber, harremanetan jarriko da komunikabide horien arduradunekin, Mendaroko Udalarri buruzko informazio osoa, ahal den neurrian euskaraz atera dezaten.

Bestetik, euskal komunikabideak bultzatzeko asmotan, Mendaroko Udalak ateratzen duen publizitatea, nazio mailako zabalkundea duen euskal komunikabideetan, euskaraz argitaratzeko erabakia hartzen du.

44. Art. - Mendaroko Udalak, instituzioek egin behar duten euskara normaltzeko lana ezin bestekotzat jotzen bada ere, derrigorrezkotzat jotzen du, era berean, Udalerrian eta Euskal Herri osoan euskararen normaltzarako zer esana baduten pertsona eta erakundeekin harremanetan lan egitean. Euskara Mendaroko Udalean eta Udalerrian normaltzen bada, denon elkar lanaren fruitu besterik ezin bait daiteke izan. Horrexegatik, Mendaroko Udalak pertsona eta erakunde hauen lana eta bere koordinatu asmoz, Euskararen Batzorde Informatibo zabal bat antolatuko du.

udal etxea



ayuntamiento

XI. EUSKARAREN MODERNIZAZIOA, BATASUNA ETA NORMALKUNTZARAKO AZPI EGITURA.

45. Art. - Ordenantza honen aplikazio eta garapenerako etorkizunean har daitezkeen neurri teknikoen zuzendaritza eta jarraipenaz Udaleko Euskara-Zerbitzu Teknikoa arduratuko da, Udaleko Euskara Batzorde Informatiboak esandakoa kontutan hartu ondoren eta jasotako erizpideen arauera, markatutako hildotik.

Udaleko Euskararen Batzorde Informatiboa, Mendaroko Udalerrian euskararen normaltzeko lanetan diharduten pertsona, elkarte erakunde eta gizarte esparru ezberdinen eztabaidarako elkar gunea izango da. Udalaren hizkuntz normalizaziorako ihardunaren ardatzak finkatu eta berrikusteko erizpideak emateaz arduratuko da. Bestalde, Euskara-Zerbitzu Teknikoa saiatuko da, era berean Euskararen Batzorde Informatiboko partaideek behar duten laguntza teknikoa eta azpiegitura ematen.

Mendaroko Euskara Batzorde Informatiboak markatutako hildotik, Udaleko Euskara Zerbitzu Teknikoa izango da euskaraz egindako lanaren prestaketaz, idazkeraz eta gainbegiraketaz arduratuko dena, hala nola pertsonaleko lankideei jatorrizko dokumentuak euskaraz idazten lagunduko dionak.

46. Art. - Mendaroko Udalak, Ordenantza honetan xedatzen dena bideratzeko, ezin bestekotzat jotzen du aurreko artikuluan aipatu azpiegituraz jabetzea, eta hildo horretan, bere buruari sei hilabetetako epea jartzen dio azpiegitura hori bideratzeko.

XEDAPEN GEHIGARRIAK.

LEHENA: Mendaroko Udalak sortu edota bultzatzen dituen programa guztietan hizkuntz erabileraren normalizazioaren ikuspegia kontutan hartu beharko da, eta Udaleko Euskara-Zerbitzua izango da, beti ere Ordenantza honen hildotik hizkuntz normalizaziozko ikuspegiaren presentzia berma dadin, Udaleko Zerbitzu eta Departamendu guztiak informatuko dituen. Guzti hori erabakia dagokion Udal organoak hartzearen kalterik gabe.

BIGARRENA: Udalak onartutako gainontzeko Ordenantza eta xedapenak, Ordenantza honetan jasotakoak bereganatu egin beharko dituzte.

udal etxea



ayuntamiento

XEDAPEN DEROGATZAILEA

Baliorik gabe geratzen dira Ordenantza honen maila berekoak edo txikiagoak izanik, Ordenantza honetan xedatuarekin bat ez datozen edo kontrajarrita dauden erabaki guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honen aplikazio eta garapenerako beharrezkoak diren xedapen eta programa berezi xehetuak erabaki eta bultzatuko dituzte Udaleko organo exekutiboek.

DILIJENTZIA:

Aurretik doan Euskararen Erabileraren Sustapen eta Normalizaziorako Udal Ordenantza hau, 1990.eko Azaroaren 29an Udal Batzar Nagusian aprobaturik izan zela eta 1991.eko martxoaren 26an ospaturiko Plenoan esarri ziren aldaketak ziurtatzeko.

Mendaro, 1991.eko Martxoaren 27an.

ALKATEAK

IDAZKARIA